

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Aurkeztuko dugun enpresa Kuussu Ibiltaria du izena, eta helburu soziala du. Euskal Herriko kultura eta hizkuntza, euskara, sustatzea izango dira gure helmuga nagusiak, pertsonen arteko harreman fisiko eta aurrez aurrekoak garatzeaz gain.

Aipatutako helmuga kulturalak lortzeko, hurrengo ekintzak eskeiniko ditugu: irteerak, Euskal Herriko herri desberdinak eta haien historia ezagutzeko, baita mendi martxak ere, mendi desberdinak arakatzeko. Bestetik, helburu sozialak betetzeko hitzaldiak eta tailerrak prestatuko ditugu, gazteei puri-purian dauden arazo sozialei buruz informazioa emateko eta haiek hauetaz jabetzeko; horrez gain, txikienei ipuin kontaketak aurkeztuko dizkiegu. Hala ere, enpresa garatzen den heinean, jarduera gehiago burutzeko asmoa daukagu.

Ekintza hauek eskaintzeaz gain zenbait produktu salduko ditugu. Produktu hauek "ecofriendly" eta kilometro zeroak izango dira, horregatik bigarren eskuko arropa eta liburuak salgai izango ditugu, berrerabilpenaren alde egiteko. Gainera, beste hainbat produktu ekologiko salduko ditugu, ingurumenari kalterik egiten ez dizkietenak, hala nola, bambuz egindako hortz eskubilak, eskuz egindako xaboiak, hilekoaren kopak...

Hau guztia aurrera eramateko, alde batetik furgoneta bat erabiliko dugu gure proiektua leku berrietara hedatzeko eta ditugun produktuak garraiatzeko, eta bestetik, sare sozialak erabiliko ditugu gure enpresaren mezua zein den zabaltzeko eta egingo ditugun ekintzak ezagutarazteko.

